

**FUNTSEZKO ELKARTEA**

**ADMINISTRARITZA- ETA  
KUDEAKETA- OINARRIAK**

**ANJE DELGADO**

**DANEL GARCIA**

**YURENE FERNANDEZ**

**ESTIBALITZ NAVARRO**

**GARAZI PEREZ**

## **FUNTSEZKO ELKARTEA**

Gure proiektuak funtziona dezan ezinbestekoa dugu beste elkarteekin eta hornitzaileekin aliantzak egitea.

Aliantza horiek gurekin lehiatzen ez duten enpresekin sortuko ditugu, hau da, gurea ez den sektore ekonomiko desberdinean lehiatzen duten, beste enpresekin. Esan beharra dago gure enpresarentzat hoberena nahi dugunez momenturen batean enpresaren bati kompetentzia egin behar badiogu edo bere salmentak oztopatu behar baditugu ez dugula inongo errukirik izango, etengabean beste enpresekin lehiatzen ari garelako eta hemen hoberenak irabazten duelako.

Horien artean, aliantza osatuko dugun lehenengo enpresa *Eggnovo* da. Enpresa honi, gure irabazien %10a emango genioke.

*Eggnovo*, Nafarroako enpresa bat da, Villatuertakoa zehazki. Bere kokapena oso ondo datorkigu materialak azkar lortu ditzakegulako eta Erreteriatik ordu eta erdira dagoelako. Gure produktua sortzeko arrautza-oskolak beharko ditugu eta guk ez ditugunez, European aitzindaria den enpresa honek bideratuko dizkigu, hau da, gure hornitzaile nagusienetako bat izango da. Bestalde, gure enpresan ekologia oso kontutan izateaz gain, hemengo produktuekin ekoizten saiatzen gara nahiz eta Euskal Herrian beti ez dauden beharrezkoak ditugun produktuak.

Aliatuko garen hurrengo enpresa, *Aral Higiene Y Salud* da eta honi ere Eggnovori bezala gure irabazien %5a emango genioke.

Aral Higiene Y Salud, Bartzelonako enpresa bat da. Nahiz eta ez dagoen oso gertu, kotoian espezializatuta dagoen enpresa da eta hori da hain zuzen ere guk behar duguna. Gure produktua sortzeko kotoia behar dugu eta enpresa honek kotoi industrialak hornituko liguke, hori dela kotoi-zotzentzat guk behar dugun kotoi mota. Beste alde batetik, arestian esan bezala gure enpresan ekologia asko baloratzen dugu eta enpresa honek %100 kotoia bakarrik saltzen du, ez du lehengaiak bestelako gauzekin manipulatu.

Behin produktua sortuta, *Seur* enpresarekin aliantza sortuko dugu gure produktua herrialdetan zabaltzeko helburuarekin.

*Anje Delgado, Danel Garcia, Yurene Fernandez, Estibalitz Navarro eta Garazi Perez.*